

IRAGARKIA

2023ko apirilaren 19an Udalak egindako Osoko Bilkuran, ondoan eta idatzirik dagoen akordioa onartu zen, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 206. artikulua salbuespenarekin:

---“7. 2023/13 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (INSTITUTUAREN SARRERA ETA MUKIXU PARKEAREN INGURUNEA HORMIGOITZEA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1532-61901. Institutuaren sarrera eta Mukixu parkearen ingurunea hormigoitzea. 22.647,00 €.

Zenbatekoa, guztira: 22.647,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 22.647,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

_____ ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/13 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko

aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespeneri buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean”---

Argitaratzen da aipatutako ondorioetarako.

Bera, 2023-05-04.
SINADURA DIGITALA.
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.